

...eta

KittO!

817 zkia.
2012-IX-14



Jubilatu etxea GAZTETZEN

Nik 
euskara



Matrikula Zaba-

Titulu ofizialak / 30 urteko esperientzia
Ordutegi eta erritmo malguak / Kurtsoa
finantzatzeko beka / Ekintza osagarriak

PORTALEA – Bista Eder, 10

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Tfnoa: 943 70 09 12 / Faxa: 943 82 00 89

DOKTOREAK:

Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

Kasu konplexuetako
eta hezur eta
hortzoi gabeko
inplantologian
ADITUAK

BEZ-ik igo gabe!!!

PUNTA-PUNTAKO
inplantologia,
OSTEOINKORPORAZIO
teknika BERRIA
erabiliz



Inplantologia






ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera:

10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

*Prezio
berezia!*



Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Mariano Raxoik presidente denetik -iazko azaroaren 20tik- telebista lehen elkarrizketa eskaini du. François Hollande aurtengo maiatzaren 15etik da presidente eta bigarren telebista elkarrizketa izan zuen domekakoa"

(ARITZ GALARRAGA, KAZETARIA)

"Ekonomikoki neurri jasangarria dela dio Gobernuak, baina ikerketek argi lagatzen dute bertako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak etorkinek. Aldiz, ez prebenitzeak prozesu garestia ekar dezake"

(IVAN VERGARA, MEDIKU OBJEKTOREA)

"Sahararrok eztabaidatzen ari gara, ez armak hartu behar ote ditugun, baizik noiz eta nola hartu gatazka honi irtenbiderik eman nahi ez badiote. Polisarioa ahalegin guztiak egiten badihardu ere hori eragozteko"

(JATRI ADUH, FRONTE POLISARIOA)

"Sánchez Gordillok eta beste kide batzuek supermerkatuetan janaria ostu eta sekulako eskandalua sortu da. Ez dut nik defendatuko lapurreta eta gutxiago biolentzia, baina eraso horiek guztiz koherenteak dira"

(GARBIÑE BIURRUN, EPAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IRUTXUR.- Txokoa, hiru planok egiten duten angelua. "Irutxur baten ezkutau zan, etsaiერი igesik". Iruzurra, traizioa. "Gaurko jokuan, irutxurra bis-bistan egon da".

IRUTXUR EGIN.- Traizio egin, engainatu. "Bide ardixan, illunak eta bakardadiak lagunduta, irutxur egin zestan".

IRUTXUR JOKATU.- Iruzur egin, traizio egin. "Lehenengo egunetik, irutxur jokatu eben urdiñak".

IRUTXURLARI.- Iruzur egiten duena. Gaztelera 'tramposo'.

eskutitzak

EIBARKO HARITZA E.K.E. BABESLEEN BILA

Kaixo gure lagun agurgarriok: Eibarko Haritza eskubalo taldeko kideok laguntza eskatu nahi dizuegu. Urteak daramatzagu dagoeneko federatu mailan jokatzen eta, hala izaten jarraitzeko, instituzioen laguntzarik ez dugunez, beste bideak jorratzen dihardugu. Horregatik, Debabarrenako taberna, denda edo bestelakoen laguntza lortzen saiatzen ari gara;

modu horretan eskualdeko kirola sustatzeko, Ermua, Elgoibar, Sorluze eta Eibarko kirolariak garenez. Gure patrozinadore izatera animatzen bazarete, 50 euroengatik gure herrietan jarritako karteletan zuen logotipoa jarriko dugu, eta emaitzen eta sailkapenaren horria banatuko dizuegu. Eskerrik asko.

EIBARKO HARITZA

ZORIONAK EIBARKO GAZTETXIARI

Gezurra dirudien arren, abuztuaren 24an urtebe- te izan zen Eibarko gazteok Cadenas Iris-eko fabrika zaharra okupatu genuenetik. Tallarra gaztetxea bota zigutenetik leku baten premia igartzen genuen nahi genituen ekintzak burutu ahal izateko. Hala nola, urte onetan kontzertuak, antzerkiak, marrazki tailerra, bertso-afariak, inmigrazioarean inguruko jardunaldiak, genero tailerra, bideo emanaldiak... egin dira. Eta beste eragile sozial batzuk ere erabili dute espazio hau: CNT, Herrira... Hainbat gelatan egin diren obrek, gimnasioa, musika-entsegu gela, kontzertu aretoa, sukaldia... euki ahal izateko.

Hori danori betikoen (Ertzaintza, Udala) oztopo-

en gainerik. Seguruena askok ez duzue jakingo, baina ekainean Plazatik Gaztetxera XI-ko finala egiteko mahaiak, aulkiak eta suak eskatu zitzaizaien Udalekoei hilabete bat lehenago, baiezkoa jasoz. Finalerako astebeite faltan, ez zigutela ezer lagako esan ziguten, eta azken momentuan Sorluzeko Udalera jo behar izan genuen. Gainera, Eibarren eskatu ziguten 150 euroko fidantza ez digute bueltatu. Batzuk opor luzeak izan dituzte, antza. Dena dela, **ZORIONAK** Eibarko gaztetxeari eta askoz ere urte gehiago bete ditzala! Ahaztu barik hau posible izatea egin dugun guztiori, eskerrik beruenak.

IÑIGO ARIZAGA (EIBARKO GAZTE ASANBLADA)



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez.

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza




Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan



56 URTEKUEK BAZKARIXA

1956xan jaixotakuak bazkarixa egingo dabe urrixaren 20xan, Arrateko Krabeliñen. Aurretik Untzagan batu eta erretratua etarako dabe. Izena emoteko 75 euro sartu bihar dira Kutxan, 2101 0035 180128160801 kontu korrontian urrixaren 10erako. Informaziño gehixagorako www.eibar1956.com webgunera jo edo eibar1956@gmail.com helbidera idatzi leike.



FIARE

Aste honetan ekin detse ohiko martxiari Fiare banku etikokuak gure herrixan: interesa dakanak Untzagako jubilau etxera jua leike eguaztenetan, 18.00etatik 20.00etara eta, bestela Egoaiziak San Andres elizan dakan bulegora, martitzen eta eguenetan, 11.00etatik 14.00xetara.

Dena prest Legarrerako jaixetarako

Datorren astian, hillaren 21ian eta 22xan ospatuko dittue Legarreko jaixak eta honezkero bertako jai batzordiak preparau daben programiak jasotzen dittuen ekitaldixak zihetzuta dagoz: datorren aste-ko barixakuan, 20.00etan botako dabe txupinazua eta jarraixan kalejiria egingo dabe, trikitilari eta buruhandixak lagunduta. 20.30xetan patata tortilla txapelketia hasiko da eta gaberako kontzertua antolatu dabe, Badarumba eta Cerebral Effusion taldiekin. Eta hurrengo egunian eguardittik ekingo detse programari, kalejiria eginda eta jarraixan hona-kuak ospatuko dittue, bestiak beste: saldia



Legarreko jaixak hurrengo asteburuan ospatuko dira.

eta txorizua banatzia, umiendako jolasak, herri bazkarixa, makillaje tallarra umiendako, Etel eta Agirrerekin dantzaldixa, "Barreen laborategia" umiendako ikuskizuna, txokolate-jana, kalejiria eta jaixak agurtu aurretik, kontzertua eta erromerixia eskinduko dabe Ni Neu eta Xero Xiette taldiak.

Grebarako arrazoiak presentatzen


Aste honetan Arrasaten egindako agerraldixan azaldu dittue LAB sindikatuko ordezkarixak hillaren 26xan greba orokorra egitteko arrazoiak. Egunotan geurian indarrian dagan eredu ekonomikua gogor kritikatzan

dabe sindikatuko ordezkarixak, bestiak beste "sektore publikua suntsitzen diharduelako, lan erreformak enplegua desager-taraztia eragiten dabelako eta mendetasun egoeran daguazenen eskubidiak murrizten diharduelako".



Arrasaten emondako prentsaurrekuaren irudixa.

Horren aurrian, alternatibia badaguala pentsatzen dabe, baldin eta hiru erabagi hartzen badira: "Españiako gobernuaren erreformak ez aplikatzia, euskal instituziñuen aurrekontu publikuetan ezarritako murrizketak baliogabetzia eta krisitik urtetzia ahalbidetuko deskuen politikak egitteko plan instituzional barri eta integrala mahai gaiñian jartzia".



OLGA ELORZA GALLASTEGI


(2012ko abuztuaren 29an hil zen)

Izan zirelako gara eta garelako izango dira.

Senideen izenean, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen gutztoi.
Bereziki eskertu nahi dugu Goruntz abesbatzaren parte-hartzea.

Biohondakiñetarako kontenedore gehixago

Debabarrenako 59.000 bat biztanleri biohondakiñak zaborretik bereizteko aukeria emoteko, Eibarren, Elgoibarren, Ermuan eta Soraluzen horrek jasotzeko edukiontzi marroiak ipiñi dittu Mankomunidiak, aurreko astian aditzera emondakuari jarraituta. Urte hasieran hainbat kaletan proba modura martxan ipiñittakuak "arrakastia" euski dabela diñue zerbitzuaren arduradunak eta, horregaittik, bigarren pauso batian ahalik eta herritar gehixen kanpaiñiarekin bat egittera animau nahi dittue eta, horrekin batera, hon-



dakiñ organikuak modu egokixan jasotziak dakan garrantzi-za azpimarratu nahi dabe: "Etxe baxotxian sortzen dan zaborraren %43 inguru organikua da eta, bihar dan moduan bereizi, poltsa biodegradagarrixetan sartu eta kontenedore marroietan bota ezkeru, konpost edo ongarrri bihurtzeko aukeria dago". Herritarrak martitzenera arte euki dabe izena emoteko aukeria, baiña aurrerago animatzen diranak 943670249 telefono zenbakira deittu leikie.

Esperientzia Eskolarako matrikulaziñua

Zabaldu dabe ikasturte barrirako matrikulia egitteko epia Esperientzia Eskolan. Parte hartzeko nahikua da 50 urtetik gorakua izatia eta ez dabe eskatzen aurretik edozelako ikasketa titulaziñorik eukitzia. Klasiak urriaren 16xan hasi eta 2013ko maiatzaren 30ian amaittuko dittue eta astian hiru egunetan (martitzen,


eguzten eta egunetan) izango dira, 09.30xetatik 12.30xetara. Bertan landuko dittuen ikasgaixak, barriz, jarraixan aittatutako honek dira, bestiak beste: osasuna mantentzia eta hobetzia, informatikia, komunikaziñorako gaittasunak, filosofixia, psikologixia, astronomixia, ekonomixia, zuzenbidia, garapen jasangarrixia...



Horrekin batera, hitzaldi, bidaia eta gidatutako bisitekin osatuko dittue klasiak landutakuak. Matrikulia betetzeko azken eguna urriaren 15a izango da (200 euro). Informaziñua eskatzeko edo zuzenian izena emoteko 626 77 36 76 edo 695 78 89 36 telefono zenbakixetara deittu leike edo, nahixago dabenak, Debabarreneko herrixetako edozeiñ udaletxera juateko aukeria dauka.

Haurreskoletako matrikulaziñua zabalik

Eguaztenaz geroztik herriko hiru haurreskoletan (Amaña, Orbea eta Arrateko Andra Mari) izena emoteko aukeria dago eta interesa dakanak matrikulia betetzeko tartia eukiko dau hillaren 19ra arte. Haurreskoletako arduradunak diñuenez, "oindiok toki libriak geratzen dira hiru haurreskoletan". Matrikulia egitteko orrixak eta informaziñua haurreskoletan bertan eskatu leikez eta behiñ agiri guztiak beteta, norberak aukeratutako haurreskolan entregau biharko dittue, aittatutako epia amaittu baiño lehen.



Enrike Zuazua

Matematika eta meteorologia

Gizakiak antzinatik du harremana eguraldia eta naturarekin. Baina eguraldia aurreikusitako eta aztertutako lanean Matematika behar-beharrezkoa dugu.

Airearen higadura eredu matematikoen bidez aztertu eta ulertu ahal da. Hasteko, atmosferaren geruza anitzak, bata bestearekin lotuz, inguruko meteorologiarako eredu osoa sortzen dute, hainbat aldagai kontutan izanik (bertako orografia, itsasoa, basoak) eta baita guztien arteko elkarrekiko eraginak. Estatistikak kontuan hartzen baditugu, horko emaitzak hobeto ulertzeko gai izango gara.

Arlo horretako ereduak barneratzen dituzten ekuazio matematiko erraldoiak ebazteko gaur egungo superordenagailuak behar ditugu, Matematikak hedatutako metodo bereziak batera. Puntako konputazio zentroetan aterako datu guztiak meteorologoak aztertzen dituzte aurreko esperientzian eta estatistikan oinarrituz. Horrekin, gero eta doitasun handiagoz aurreikusten da hurrengo egunetako eguraldia.

Gaur egungo Meteorologia oso puntako zientzia da. Ez gaurkoa. "Meteoro" (zeruan goi) eta "logos" (jakintza) hitz grekoekin osaturik, antzinako arloa dugu, natura hobeto ulertzea izan baita gizakiaren lehenetarikoa eta behar handienetarikoa.

Hala ere, Edward Norton Lorenz (1917-2008) matematikari eta meteorologo ipar-amerikarrak 1960an nabaritu zuen bezala, Kaos-are ere meteorologian agertzen da, bizirik eutsiz eguraldiaren aurrikuspenaren erronkari. Ezaguna da Kaos-ari buruzko esaldia: Brasilen tximeleta batek hegalkak astindu eta Euskal Herrian urakana!

asteko

4.574

datua

ikaslek ekin detse ikasturte barrixari gurian: 332 HHko lehen ziklokuan, 729 HHko bigarrenian, 1.433 LHn, 9 hezkuntza berezixan, 937 DBHn, 511 batxillerguan, 187 Lanbide Heziketako mailla ertainian eta 436 goi mailan.

Nekazaritza Ekologikuaren Astia


Atzo presentau eben Portalean hilla- ren 18xan hasi eta 23ra bittartian Eibarren aurrera eruango daben Debarreneko Nekazaritza Ekologikuaren I. Astia. Nekazaritza ekologikua ardatz modura hartuta, programa bete-betia preparau dabe Biolur, Debemen eta Azataporrua alkartiak, Udalaren laguntasunarekin, "jardunaldixekin eskualdeko herrittarreri ekoizpen modu honen gaiñeko informaziñua emon eta orohar elikaduraz zein gaur egungo konsumo ereduaren gaiñeko eztabaida sortze-ko asmoz". Martitzenian (hillaren 18xan), 19.00etatik aurrera hitzaldixa emongo dabe Portalean hainbat laborarik, Euskal Herri maillan



garatzen diharduen proiektu barrizaiilla presentatzeko. Eguenian, barriz, toki eta ordu berian eskualdeko konsumo taldien arteko mahai- ingurua egingo dabe. Eta hillaren 22xan Urkizuko parkian ekoizpen ekologikuen azoka berezixa egingo dabela aurreratu dabe, Euskal Herriko hainbat tokittik etorriko diran produktu ekologiko morduarekin.

Odol-emotaille gehixagoren premiñan

Gipuzkuako odol-emotaillien alkartiak Eibarren, Pagaegi kalia dakan egoitzan lortu eban abuztuan millioia egi- tten daben donaziñua. Halanda be, herrittarrak odola emotera animau nahi dittue, iaz martxan ipiñittako kan- paiñiaren bidetik, Munduko Osasun Erakundiak herri ba- kotxerako gomendatzen daben odol-emotaille kopurura ailllegatzeko falta jakuzen 362 emotailliak lortzeko espe- rantzarekin. Gaur egunian Eibarren 462 lagunek emoten dabe odola (247 gizonezkok eta 215 andrazkok). Odola emon nahi dabenak dato- rren astian bertan eukiko dau horretarako aukeria, Gi- puzkuako odol-emotaillien alkartiak ikasturte barrixari betiko martxan helduko de- tsa-eta: eguenian, hillaren 20xan Pagaegi kaleko 5ian egongo dira alkartekuak odola etaratzen, 18.30xeta- tik 20.30xetara.



Olixua birziklatzia saritzen


Debarrenako Mankomunidiak eta Ekograsek etxietan erabiltzen dan olixua jasotzeko kanpaiña ipiñi dabe martxan, herrittarrak sukaldian erabilittako olixua modu egokixan jasotziak dakan garrantzixaz kon- turatzeko. Gaiñera, jendia animatzeko asmoz, etxeko olixua birziklatzen dabenak saritzeko sistemian asmatu dabe eta, horri jarraituta, datorren urtian olixua birziklatzen daben artian zozketia egingo dabe eta irabazliak lagun birendako afarixa irabaziko dau, olixua birziklatzen daben eskualdeko jatetxeren batian. Kanpaiñiaren barruan, egunotan etxeko buzoietan sartuko dittue olixo-birziklatziaren gaiñeko informaziñua ja- sotzen daben liburutxua eta 12 pegatina banatuko dittue. Zozketan par- te hartzeko, herrittarrak kontenedore laranjetan olixua birziklatzeko bo- tilla bana lagatzen daben baxotxian pegatiñetako bat pegau biharko dabe. Horrekin batera, birziklatziaren gaiñeko magia ikuskizuna kalia eskintzeko asmua dake Eibarren, Ermuan eta Elgoibarren.

VICTOR UBERA MUJIKA

-M^a PILAR GISASOLAREN ALARGUNA-

(2012ko irailaren 9an hil zen, 86 urterekin)

Senidekoen izenean, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.





LEIRE NARBAIZA (Berria-n udako zutabegille)

“Anekdotak idazteko pizgarri modura erabili ditut”

Lanbidez irakaslia eta afiziñoz blogarixa dan eibartarrak abuztuan egunero idatzi dau iritzi artikulo bat, Berria egunkarixan argittara emoteko. Hasierako erreparuak gaindittuta, pozik dago bizipen barrixarekin eta, lehenagotik be bestien iritzi artikuluak irakortzeko ohitura haundixa izanda be, ointxe bestiak idazterakuan egitten daben ahalegiñ haundixa hobeto ulertzen dabela diño.

- Nolatan animau zara udan iritzi artikuluak idaztera?

Uztaillaren erdialdera Berria-tik deittu zesten, abuztuan egunero kaleratzeko iritzi artikuluak idazteko proposatzen. Pentsatzen hasi eta beldur piskat emoten zestan, bestiak beste ez naitzelako ez kazetarixa, ez idazlia, baiña azkenian animau eta baietz erantzutia erabagi neban.

- Zuretzako esperientzia barrixa izan da, ezta? Zer moduzkua?

Oso ona. Gogorra izanda be, engantxau egitten dau. Egixa esateko, idazten jardun doten bittartian egun osuan artikulua-rekin bueltaka ibiltzen nintzan, zeren gaiñian idatzi pentsatzen lehelengo eta gero, ordenadore parian jarri eta pare bat ordu erraz emoten nittuan, idatzi, berriatzi eta azkenian kalera-tu biharrekua erredakziñora bialdu aurretik. Ez dakit dato-

rren urtian atzera be idaztia proposauko desten ala ez, baiña pentsatzen dot baietz esango nebala barriro.

- Zeren gaiñian idatzi zeure esku laga dabe? Zelan aukeratu dittuzu gaixak?

Nere inguruan laguntza eskatu neban eta gai-zerrendak be osatu nittuan, baiña nahiz eta gai diferentia euki zerrendak bakarrik ez desta larregi lagundu, idazteko pizgarri modukua bihar neban eta horretarako anekdotak erabili ditut, nere

“Papelak zelako indarra dakan, zenbat jendek irakortzen daben ikusi dot”

inguruan pasautakuak edo Twitter bittartez jasotakuak idazteko aitzakixa izan dira neretako.

- Udia holakuak idazteko sasoi aproposa da?

Akaso biharrerako ez da asoirik egokixena, baiña gaixak hartzeko orduan bai, bestiak beste jendia eguneroko rutinatik kanpora ibiltzen dalako. Gaiñera, bizitzen dihardugun situziñuarengaittik-edo, aurtengo udan behintzat ez dot gaixak topatzeko arazorik euki.

- Zuk bloga dakazu. Zelako aldia ikusten dozu bertan egitten dozunaren eta egunkarirako idatzi dozunaren artian?


Bloga norberana izanda, norberak agintzen dau modu batian azaltzeko. Idatzittakuaren neurrian muga norberak ipintzen dau, maiztasuna be norberaren esku dago, argazkixa ipiñi ala ez... alde horretatik askatasun

gehixago emoten dau blogak. Baiña egunkarixan idazten hasi eta segiduan ikusi neban papelak zelako indarra dakan, pentsatzen dot jende gehixagorengana aillegatzen dirala idatzittako artikuluak. Izan be, blogian idatzittakua jende askok irakorritta be, badirudi hor esandakuak interneten geratzen dirala gehixago, baiña egunkarixan artikuluak kaleratzen hasi eta gitxira aspaldiko lagunak idatzi zesten, egunkarixan idatzittakua ikusi ebela kontatzen. Bestalde, egunkarixak zuk idatzittakua kaleratziak beste pisu edo konfidantza modukua emoten dabela pentsatzen dot, babes moduko bat. Eta hori bloga zazpi urtian martxan dakatela eta Eibar.org barruan egotiak be mailla batian babes moduko hori eskintzen dabela, baiña ez da gauza bera.

MANOLI AZKUNE URANGA

I. urteurrena (2011-IX-15)

Haren aldeko urteurren MEZA ospatuko da irailaren 16an, eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokiari



Gure neska-mutillak eskolara bueltatzen diran sasoi honetan, badira arazo berezixak edo zailtasunak ditzuzten haurrei eurei dagokixen zerbitzuak emoteko prest dagozenak. Garatu haurraren garapenerako zentrua da eta Errebal 9an dago funtzionatzen, ekaiñetik. Talde lana egitten dabe, "arazuak be arlo batekuak baiño zabalaguak izaten diralako orokorrian". Horko emaitzak progresibuak izaten badira be, hor be setienbrian hastiak bentajia besterik ez daka.

Haurraren garapenerako zentrua dogu Eibarren

Haurren egunerokuan ahalik eta errendimendu onena lortzia ahalbidetzen dogu", diosku Ainara Larrañaga Garatu zentruko arduradunak. Terapia okupazionalaz arduratzen da bera eta, diplomatura sozio-sanitario horrekin, gehixenbat "aspektu motoren gaiñian jarduten dot, prozesamentu sensorialeko eta haurraren autonomian sakonduz". Aurretik lau urte egin dittu Larrañagak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuko Berritzegunen eta baitta zentru pribatuetan.


Berarekin osatzen dabe Garaturen lan-taldia fisioterapeuta batek ("Neurologian espezializatua da bera eta arlo motorikoaz arduratzen da, ba-

tez be") eta neuro-psikologuak ("azken honek aspektu kognitibuak, emozionalak eta sozialak lantzen dittu").

Euren talde-lanian arazo desbardiñak tratatzen dittue: "Dislexia izan leike, autismua, garun paralisia... eta baitta autonomia falta: esaterako, esfinterrak kontrolatzen ez ditzuzten haurren kasuak, eurak bakarrik janzten asmatzen ez dabenak". Kasu guztietan behaketa egiñ eta zein prozesu abiarazi ikertzen dabe.

Atenziño arazua

Azken aldixan gehixen de-mandatzen detsen zerbitzuen artian, "atenziñuaren arazua dago, batez be eskolatik bideratutakua. Baloraziñua egitterakuan, baiña, kontuan izan




Ainara Larrañaga Errebal 9an dakan zentruaren instalaziñuetan.

bihar da kasu danak ez dirala TDH deitzen diranak (Trastorno del Déficit de Atención e Hiper-actividad etaratako siglak)". Aittatutako arreta-gabezixa eta hiper-aktibidade hori bide egokixaguetatik eruateko, "Osakidetzak eskintzen daben bidia dago, medikaziñuarena, eta geuria, zen-tratuagua".

Haurraren garapenerako ar-luan gabezixa haundixa nabaritzen dau terapia okupazionalako arduradunak: "Hamen ez dakagu beste herri batzue-

tako posibilidaderik, oiñ arte gutxi landu dalako. Sistema sanitarixo eta edukatibo integratuaguak biharko zittuan gure gizartiak, legeztatutako zerbitzuak eta programak eskintzeko. Gabezia haundixa dago Hezkuntzan bertan eta gizarte zerbitzuetako arluak be lagata daka esparru hau".

Oiñ arte esandakuarekin, ez da arrarua egitten guraso asko galduta ibiltzia holako kasuetan: "Informaziño gitxi dago. Ekipo terapeutikorik bez; gehixago jotzen da bide far-



EMILIA IZAGIRRE MAKUA
I. URTEURRENA (2011-IX-14)


"Maite zaitugulako, betirako gure artean"

ZURE FAMILIA



makologikotik. Ez da disziplinen arteko lanik apenas egitten". Gipuzkuan, esaterako, eurena da, estilo horretako zentru bakarra eta Larrañaga aretxabaletarrari, astelehene-tik barixakura egitten daben lanetik aparte, "astebukaeratan tratamendu intensibua eskintzera" behartzen detse: "Probintziako zein puntutik datorren, Eibar oso eskura ez dake-eta askok".

Zailtasunetako bat "umiak berandu ekartziarena" izan leike. Berak diñuan, "kasuaren arabera bada be, progresiñua eta hobekuntza danak nabaritzen dabe, hasieratik gaiñera". Onartzen dau, halanda be, holako prozesuak "luze jotzen" dabela. Zerbitzuak be desbardiñak dira: gaitasun sozialak tratatzen dira gehixago nerabien artian, esaterako. Sexuen arteko desbardiñak ez dau egitten, "idazketan-eta mutillak zeozertxo arazo gehixago izan baleikie be". Alimentaziño arazuak daken "desnutriduak" be atenditzen dittue: "Badira umiak bost elikagai besterik jaten ez dabena. Holako kasuak soluziñua eskatzen dabe". Sesiño intensibuenak ordu eta erditik ez dira pasatzen.



Garapen arazuak dakezen haurrentzako laguntza zerbitzuak asko laguntzen detse halako haurri.

Hainbat tratamendu

Tratamendu indibidualekin (terapia okupazionala, fisioterapia, neuropsikologia) batera, talde-tratamenduak be eskintzen dabe Garatun: idazketa lantzeko, gaitasun sozialak, autonomia edo jolasa, "beharren arabera". Ikastolak be asesoratzen dittue, curriculumian zelan egokitu esanez eta, haurren zailtasunen aurrian, parte-hartzia hobetzeko. Kursuak be emoten dittue ikastetxietan, gurasueri zuzendutakuak eta blog-a dake, profesionaleri eskindutakua eta lagungarri izan leikiena. "Interbentzio goiztiarrak abantailak besterik ez daka, margen gehixago be eskintzen desku-eta".

Bere kabuz aurrera

Ana Aranberri eibartarraren bigarren umiak txikixa, baiña garun paralisisa daka: "Maillak dagoz hor eta berak gitxi daka, baiña lan asko egin bihar izan dogu halanda-be". Berak be nabaritu zeban zerbitzu eta informaziño faltia, baiña beldurrak alde batera laga zittuan: "Nire izaeria izango da igual, baiña galdetzen hasi nintzan, irakortzen informaziño billa... Eta Aspacen eta Diputaziñuan aurkittu neban laguntasuna. Aspacen logopeda, fisioterapeuta, psikologua... dake laguntzeko prest eta han erakutsitakua gero nire kabuz ipiñi neban praktikan etxian. Horrek asko laguntzen dau eta umia martxan ipintzen dozu".

Arlo horretan, Aranberriek ez dau bazterterik nahi gurasuen elkarren arteko laguntasun mailla: "Batez be, amen artian izan genduana. Bakotxaren inpresioniak jasotziak alkar ulertereko lagungarria da oso. Holan baztertzen dozu benetan iñork ulertzen ez deusun sensaziño hori: modu batian edo bestian, ume berezixak diralako". Asko eskertzen dau erakundien laguntza eta zerbitzu berezieta, "etxian zuk bakarrik ezin dittuzunak konpondu". Ezagutzen ez badau be, eskertzen dau holako zerbitzu bat Eibarren izatiak: "Donostiara edo Bilbora jua biharrek egunerokotasunian asko nekatzen dabelako eta famelixak aukera gehixago izateko".



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS



Bellatokia Funeuskadi Eibar: Bulegoa:
Gto. 27 Eibarko 16, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
Eibarren zerbitzu funerararioa

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •



matrikula zabalik
2012/13 EUSKARA IKASTAROAK
goizeko 07.00etatik aurrera

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

Udalaren laguntzaz **BEKA SISTEMA**

eibar@aek.org

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379



Abuztuaren hasieraz geroztik tabernari berriak daude Untzagako jubilatutako barraren atzean: Gorka Blázquez eta Ander Fernández, 23 eta 25 urterekin, herrian jubilatutako gehien batzen duen egoitzako tabernaren ardura izango dute aurrerantzean eta, honez gero, bertako martxari ohitzen hasita daude.

- Nolatan animatu zarete tabernaren ardura hartzen?

Nahiko azkar joan da dena. Untzagako jubilatutako etxean tabernarako arduradun bila zihardutela jakin genuen eta, horrela, gure artean berba egiten hasi eta animatu ginen. Hasieran hiru laguneren artean hartzeko asmoa genuen, baina gutariko batek beste eskaintza bat jaso zuen eta, azkenean, Ander eta biok tabernaren kargu hartzea erabaki genuen. Jubilatutako etxeko zuzendaritza-kideekin berba egin genuen eta, eurek egoki ikusi zuten, ba beharrez hasi ginen.

- Aurretik tabernari jardundakoak zarete?

Anderrek hilabete batzuk eman zituen aurretik tabernan beharrez, baina niretzat lehen aldia da hau. Niretzat esperientzia berria da, beraz. Izan ere, guk Elgoibarko IMH-n ostalaritzarekin zerikusirik ez duten ikasketak egin ditugu, baina une honetan industriari lana aurkitzea oso zaila da eta, pare bat urtez beharra aurkitu ezinda geundenez, hauxe beharrez haste-

ko aukera polita zela pentsatu genuen.

- Eta nolako izaten dihardu tabernako esperientziak?

Egia esateko, abuztua oso hilabete lasaia izan da; jende gutxi ibili da orain arte. Baina, behin Arrateko jaiak igarota, jende gehiago etortzen hasi dela ikusten dihardugu, egunetik egunera gero eta mahai gehiago betetzen ari zaizkigu. Giroten doa.

- Zelako eskaintza daukazu?

Edozein tabernatan moduan, kafeak eta edariak zerbitzen ditugu eta, horiekin batera, pintxoak eta kazuelatxoak ere prestatzen ditugu. Egunero 10.00etatik 21.30etara zabaltzen dugu, eguaztetenan izan ezik.

- Eta zelako bezeroak dira jubilatutakoak? Zer eskatzen dizute gehien?

Orain arte batez ere kafeak eta txikitoak atera ditugu eta arratsalde partean jateko zerbitzu ere eskatzen dute askok. Orohar bezero onak dira, gehienek mahaitik edalontziak eta bestelakoak jasotzen laguntzen digute eta gurekin pozik daudela diote.



Gorka Blázquez
(TABERNARIA)

"Jubilatuak bezero onak dira"



OLGA ELORZA GALLASTEGI (2012-UIII-29)

*Zure irribarrea
Zure gozotasuna
Zure maitasuna
Betiko gurekin izango dira*

TXIKITAKO LAGUNAK



Napokak uda lehertarazi du


Taulara batetik bestera, etenbarik eta ia atseuden hartzeko tartea hartu barik eman dute uda Napoka Iria taldeko Miren Narbaizak eta Ander Mujikak, Napoka Band proiektuko ki-deekin batera: Debako jaietan, Moskukoetan (Irun), Tolosan, Zarautzen... eta urriaren 7an Urretxun izango dira.

2011. urtean Bonberenea Ekintzak-en eskutik "Lehertarazi Edifizioak" izenburuko diskoak argia ikusi zuenetik, lana osatzen duten abestiak zuzeneko emanaldietan herri-herri ezagutzera ematen

dihardute eta lanak harrera ezinhobea izaten diharduela ezin zalantzan ipini, abuztuaren erdialdera bigarren edizioa kaleratu dute eta.

Napoka Iria-ren lanik berrienak taldeak Zabalotegin eskainitako zuzenekoak jasotzen du. Soinu teknikariak Ander Barriuso eta Haritz Lete izan ziren eta diseinuz Ander Mujika bera arduratu zuen.

Urtarrileko asteburu batean, grabaketa estudioa Bergarako Zabalotegira egokitu, ateak publikoari zabaltu eta bi kontzertu eman zituzten kantu zahar, berri eta hainbat



bertsio eskainiz. Horieta hamar piezek osatzen dute bilduma, gitarra elektriko bat, akustiko bat eta ahotsen ohiko dantzekin. Horrez gain, grabazioan bertan egindako inprobisazio bi eta ukelelea eta kalimbaz jotako kantu ezagun baten bertsio bitxi bat

ere sartu zuten. Eta egun bietan eskainitako emanaldiak oso-osorik grabatu eta gero, Legarreko estudioetik pasatu, aukeraketa egin eta, taldearen lehen maketarekin egin bezala, Ander Barriusoren eskuetan laga zuten materiala, berak txukuntzeko.



Cobra taldearen lan berria bidean

Laster ikusiko du argia Cobra taldearen lanik berrienak, taldeak berak egunotan aurreratu duenez: "Gure hurrengo lana prestatzeari ekin diogula jakinarazi nahi diogu jendeari. Oraingoan, filma ezberdinen soinu banden bertsioek osatutako diskoa izango da". Udaren zati haundi bat estudioan sartuta eman dute Cobra taldekoek eta diskoa laster argia ikusteko moduan izango da, Kaiowas Records disketearen eskutik.

Eibarko gaztetxeak urtebete egin du

Abuztuaren 24an urtebete bete zen gaztetxe berria Iparragirre kalean, Cadena Iris lantegia izandako eraikinean zabaldu zutela eta, hori ospatzeko, lehen urtemuga betetzen zen egunean bertan, eguerdian Untzagan brindisa egin zuten gazteek. Jarraian gaztetxeraino kalejiran joan ziren, bertan bazkaria egiteko. Hilabete hauetan hainbat jardura hartu ditu gaztetxeak eta aurrerantzean ere ekitaldiak antolatzen jarraitzeko asmoa dute.



DIONISIO ETXEBERRIA GARIN

2012ko abuztuaren 10ean hil zen,
83 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroenak
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



Udal Artxiboaren laguntzarekin



1953. urteko fotografixan, Isidoro Deryk txirindularixa sarixekin, Bicicleta Eibarresaren bigarren ediziñoko hirugarren etapia (Eibar-Donostia-Eibar) irabazi ondoren, Urkizutik Errebalerantz. EIBARKO UDAL ARTXIBOA. RAMON SARASUAREN BILDUMA.

XX. mendearen bueltan

PEDRO SARASKETA korrespontsalak "Notas de un rebelde" idazten eban XX. mendia hasieran. Ondorengo kolaborazio bixetan (1913ko martxokua eta azarokua bestia) gure herriko erlijioaren eta sozialismuaren arteko harreman gatazkatsua ikusi leike: sozialismuak batzuetan diabruaren zeregiña onartzeraifokua.

Entierro baten inguruko gorabeherak

Agustin Aizpurua gaztia herri honetako Asiloan hil zan hillaren 18xan, berak eta beste hiru lekukok siñatutako deklaraziñuari jarraituta: bertan relijiño katolikuz arnegatu eban eta azken unerañio jarrera horri eutsi zetsan. Emoten dabenez, egindako erreguak, botatako erretolikak eta Asilua kudeatzen daberen Karidadeko Seroren aholkuak eziñ izan zeber bere jarrerria aldatu. Behiñ hilda, kontrako prentsiñuak jarri eber alkatiaren aurrian: alde batetik famelixuak eta inguruak eta, beste aldetik, herriko parrokuak. Lehelenguak hildakuaeren borondatia errespetatzeko eskatzen eber eta, harek dokumentu publikuan eskatutakuari jarraituta, hillotza hilleri zibillera eruateko; bigarrenak hillotza sakartuan enterratzeko eskatzen eber, azken unian Elizia barrero besarkatu ebala aittatuz, proba bakarra parrokuaren testimonixua bazan be.

Konfliktua herri osora zabaldu zan, jendiaeren animuak berotzen zoiazzen bittartian. Hori ikusitta, zuhurtziaren bi-

detik jotzeko eta konfliktua konpondu arte, alkatiak gorputza deposito neutralera eramateko agindua emon zeban. Eguerdiko 12.30xetan egingo zan, ordu horretan jende gitxiago zebillelako kalia; sozialistak, baiña, protestau egin eber, 14.00xetan egitteko eskatuz, gorputza laguntzeko asmua zeken-eta. Hurrengo egunian alkatiua udal epaillierekin bildu zan ehorzketan bixak bat eginda jokatzeo, baiña jueza guztiz inhibitu zan, halako beste kasu batzuetan be bera ez zala iñoiz sartu esanaz eta horko erresoluziñuaren ardurua aginte gubernatibuarena zala argudiatuta. Gorputza enterratzia biharrezkua zanez, alkatiak, bere kontzientziari segika, hilleri zibillian lurperatzeko agindua emon eban "hill eta 24 ordura", tokixa ondo seiñalatzu eta arazua konpontzeko indarra daken beste agintari batzuk azken erabagixa emon arte. Horrekin orden publikuaren asaldatzia eragotzi zan, "El Pueblo Vasco" egunkarixak esaten dabenaeren kontra.

Apaz baten aldeko idatzixa

Ez dakit zein filtro kristau dakan inokulatuta Donato Etxeberria abadiak Jainkuaren tenplotik urruti bizi diranen sinpitiak bereganatzeko. Proselitua egitten ditte errezelarik sortu gabe, baiña ez dauka suerterik. 20 urte dira gurera etorri zala bere Ministerixoko zerbitzu sakratuak eskaintzeko eta uste genduan zerbitzu urte hórrek bere egoerian alde egingo ebela. Baiña illunpian jarduaten daberen diabruak, adardun eta buztanluze horrek, haren itxaropenak zapuztu ditte eta Don Donato Eibar baiño mila bidar kaxkarragua dan tokira eraman dabe, Agiñagara, hogei urtetan aurreratutako lau txakur haundixak ezere-

zian lagata, gurasuak eta beste pariente batzuk ditte-eta bere kargura. Baiña eibartarrok, batez be erradikalak garenok, ezin detsagu diabruari lasai lan egitten laga. Horregaittik, sozialistak -Amuategi propagandista eta Madinabeitia doktoria buru dirala- diabruaren lana apurtu eta apaz umilla Eibarrera bueltatzeko edo Bizkaiko herri garrantzitsu batera eramateko ahalegiñian dabilta. Zeregiñ horretan, Fermin Calbeton Espaiñiako ordezkaria Vatikanuan be mobilizau dabe alde egitteko. Hau paradoxa bizi doguna: antikerikal erradikalenak abade baten aldeko gestiñuak bultzatzen!



Jesus Gutierrez
historialaria

Eibarko trenbideak 125 urte

Trena XIX. mendean ailegatu zen gurera lehenbiziko aldiz: iralaren 19an 125. urteurrena ospatuko dugu. Aurreko urteetan, bai udaletik eta bai ekimen pribatutik, lan sakona egin zen helburu hori lortzeko, Eibarko industriarentzat zein biztanleentzat tren interesgarria baitzen inguruko herrialdetara joateko. Azpiegiturak martxan jarri ondoren dena prest zegoen 1887ko udarako, eta abuztuaren 1ean jakin zen "Doña Virtudes" izenez ezaguna zen María Cristina de Habsburgo-Lorena Erreginordeak, Juan Carlos I.aren birramonak, 1887-ko irailaren 19an Bilbotik Donostiara bidaiatzeko asmoa zuela; horregatik egin zion konpainiak inauguraziorako gonbidapena, hark onartutakoa. Espainiako estatuburua buru izan zuen trenbide estuko linea baten lehen inaugurazioa izan zen.

Erregina Eibarko geltokira iritsi zenean, eskumako aldean erramuz estalitako arkuak zituzten zuriz jantzitako dozena bat gazte aurkitu zituen. Ezkerreko aldean Eibarko orfeoia zegoen eta euskarazko abesti bat eskaini zioten. Zalgurdietan, San Andres parrokiara abiatu zen segizioa; han, "Te Deum"-a abestu eta Santa Cruzeko markesaren jauregira joan ziren, oturuntza egitera. Administrazio Kontseiluak eta Udalak abegi ona egin nahi izan zieten gonbidatuei, "Círculo Eibarres"-en eta "Casino de la Amistad"-en eskainitako oturuntzekin.

Ondoren, Eibarko industriari buruzko erakusketa bisitatu zuen erreginak eta amaitutzat eman zuen Eibarrera egindako bisitaldia; horrela, behin betiko Bilbori lotuta geratuko zen Eibar, trenbidearen bitartez. Erreginak errepidez jarraitu zuen Zumarragaraino bidaia eta, handik Donostiara, trenez joan zen.

Sariz betetako zapatua

Bero handia egin zuen Arrate egunean; jendez gainezka zegoen eta horrela egon zen Kittonbolia bera ere. Goizeko 6etan ekin zion lantaldeak txokoa prestatzeari. Gauean azkeneko urteetan baino jende gehiago ibili zela jakinda, gaupasa egingdako bat baino gehiago gerturatu zen laguntzeko prest eta tonbola noiz zabalduko zen galdetzerara.

Goizeko 9etan hasi ziren Arrate eguneko lehenengo autobusak ailegatzen eta berriro ere, elizara sartu aurretik, "Kittonbolia noiz zabalduko duzue?" galdetzen zuten batek lehenengo eta beste batek ondoren. 10ak puntuan saldu zen lehenengo boletoa, euro baten, hasiera hasieratik Kittonbolako boletoak izan duen prezioan.

Berehala hasi ziren sariak banatzen. Zeresana eman zuten bereziki giltzatakoei eta baita arbeltxoek ere. Egunean bertan umek eta nagusiak arbeltxoak erabiltzen ikusten ziren kanpako edozein txokotan, ta-



SILBIA HERNANDEZ

berna eta txostenetan eskaerak egiterako orduan ere erabili omen zen. Orduak aurrera egin ahala joan ziren irteten jamoi, elektrodomestiko, nintendo, kamiseta eta abarrak.

SARI GEHIAGO

Iaz baino sari gehiago izan da aurtengo Kittonbolian. Horregatik gaurkoan ere eskertu egin behar diegu Eibar eta kanpoko enpresa eta dendei eskainitako laguntasunarengatik. Hurrengo orri bietan duzue Kittonbolia an-

tolatzen euren laguntasuna eskaini diguten guztien zerrenda. Horrek guztion parte hartzerik gabe ezinezkoa izango litzateke sari guzti horiek batu eta banatzea.

Zortea guztion esku izateko asmoarekin antolatu dugu berriro ere Arrateko tonbola berezia. Baina Kittonbolia zortea zirikatze-ko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkartearen proiektuari laguntzeko modua ere bada, Eibarren euskara bultzatze-

ko modua; hori bai, parte hartu duen eibartarrak saria jasotzeko aukera asko ere izan du. Diru-laguntzak behera doazen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoak dira horrelako ekimenak Euskara Elkartearendako. Horregatik, gure proiektuari diruz laguntzeko aukera ere izan duzue Kittonbolan parte hartu duzuen guztiok. Eta egunean bertan, jokoan zegoen batek esaten zuen bezala: 'hau zuei laguntzeko egiten dugu, saria lortuz gero, hobe'.

Guzti horren emaitza datozen hilabeteotan ikusiko duzue: ekitaldiak, aldizkariak eta abarra antolatzen jarraituko dugu-eta, datorren urtean berriro ere Arraten ikusi arte. Datorren urtean berriro elkar ikusiko dugulakoan, eskerrik asko!



Argazkikoak telebista eraman zuen etxera.

Kittonbolia

KITTONbolia



Euskara Elkarte

Arrate egunean opariz beteta izan dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera izan zen zapatuan. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiei!!!

• Aisia hotelak



• Alfa



- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe



- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia

• Azpiri saneamenduak



- Baglietto
- Benicoba
- Burbujas y más
- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Outlet
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida



- El Casco

• El Corte Ingles



• Emankor taldea



- En boga ileapaindegia
- Eroski Hipermerkatua
- Errebal kirolak
- Eslune
- ...eta kitto!
- Esteban Oroz




- Euskadiko Kutxa-Caja Laboral
- Farmalur
- Gerritek



5.000 saritik gora banatu g

Eskerrik asko parte hartu duzuen danori!

- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregui



- Jaz- Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia



- Katetxo
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Krabelin hotela
- Kros-sports

- Kultu taberna
- Lakett
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Lola's
- Mamacas
- Marian-Idoia spa
- +quñas
- +qwapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Neure
- Orbea




- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Policlinica Gipuzkoa



- Publiresa
- Quetzal
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Solera Estankoa
- Su Beroa-Oishi
- Su Ta Gar
- Talleres AIBE
- Tiro Pichon jatetxea
- Tribeka
- Trinkete



- Udalaitz
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik





- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zurkulu

Barixakutik domekara bittartian eta eguraldi zoragarria lagun, giro edarran ospatu dira aurten Arrateko Amaren ome-nezko jaiak. Arrate egunaren bezperan herri kirolak, Kantabriako bertso afarixa, zelaixan egindako herri afarixa eta jarraixan eskindutako kontzertuak izan ziran protagonista. Zapatuan, barriz, goizetik zabaldu eban Kittonbolia ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta eguardira bittartian meza nagusixak, prozesiñuak eta Kezka dantza taldeko 60 dantzarik eskindutako ezpata-dantzak erakarri eben jende gehixen; bixen bittartian zelaixan presuen aldeko erretratua etara eben. Eta arratsaldian dantza solte txapelketia eta Kupela taldiaren dantzaldixa hartu zittuan zelaixak. Gabian oindiok be jende asko animau zan Arraten geratzen, bestiak beste MP5 taldekuen kontzertuak erakarritta. Eta aurten Kofradixa eta Basarritar jubilauei eskindutako eguna jarraixan, domekan bertan ospatu zan, hori bai, bezperia baiño piska bat lasaixago: goizian Eduardo de Miguelek eta Nerea Amilibiak irabazittako Simon Aldazabal memorialak 56 korrikalari batu zittuan eta atzera be mezia eta prozesiñua egin zittuen, baiña bigarren egunian kofradixako andrak eruan eben amabijiñia. Eguardixan dozena bat bikotek hartu eben parte paella lehiaketan eta, basarritarren urteroko bazkarixaren ondoren, Azkoittiko Ixidro Erretegixaren idixak 47 plaza, 3 metro eta 23 zentimetroko markia eginda irabazittako idi-probekin agurtu genduazen jaiak.



Agur Arrateko jaiak betetako asteburuari



ARGAZKIAK: Leire Iturbe

56 parte-hartzaile, eurretatik 48 eibartar, XVII. Simon Aldazabal sarian

Domeka goizean jokaturako probak parte-hartze handia izan zuen, eguraldi sargoriari aurre eginez. Eduardo De Miguel eta Nerea Amilibia izan ziren probako irabazleak eta azken hau Cristina Loedak (32.21) duen markarengatik minutu erdira pasatxo geratu zen (33.05). Bigarren postuan sailkatutako Cesar Sanz 45 urtetik gorako onena izan zen, hirugarren tokiari sartu zen Jose Mari Bernedo 35etik gorako onena eta 4. postuaren jabe egin zen Igor Fernández izan zen gure herriko ordezkari onena. Nesketan Aitziber Urkiola izan zen eibartar onena eta Juan Jose Malvar eibartarra 65 urtetik gorako



Herriko ordezkariak Gipuzkuako karguekin egiti eben aurkezpena.

onena izan zen, beste behin. Eibarko Klub Deportiboak antolatzen duen lasterketak urtetik urtera gero eta atleta gehiago bartzten ditu.

Arkaitz Rodríguez onena izan zen Arrateko bolatokian

Guztira 70 bolari izan ziren, Asola-Berriren 50. urteurrena dela-eta, aurtun berreskuratutako Arrateko Amaren txapelketan eta sei bolari berdinduta geratu ziren, hiru txirlorekin. Berdinketa hori apurtzeko parrak jokatu, Asola-Berriko Arkaitz Rodríguez nagusitu zen, sei txirlorekin. Elgoibarko San Migueleko Xabier Osoro bigarren sailkatu zen, 5 txirlorekin eta Lander Itxoiño markinarra hirugarrena izan zen. Bere atzetik sailkatu ziren Jose Angel Astigarraga, Juan Luis Urkia eta Felix Gomez "Beltza" eibartarra.



Elgoibarko San Migueleko Xabier Osoro bigarren sailkatu zen, 5 txirlorekin eta Lander Itxoiño markinarra hirugarrena izan zen. Bere atzetik sailkatu ziren Jose Angel Astigarraga, Juan Luis Urkia eta Felix Gomez "Beltza" eibartarra.

GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizte 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketak labak

- Egokien (ligna poligonar)
- Artikular, metal eta osagun erretzibitatu
- Koak - Eskala - Utzarmak eskela
- Eskala Herri osuko ospitalean hartzen da ligu
- Nazio eta Nazioarteko tralajeak

Mugica Ehorzketa
FUNDACION 1984

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Ana Ramos

Segi aurrera

Ez Javi Martinezengatik ordaindu duten dirutza, ez Kontxako Bandera, ez Contador, ez Eibarren denboraldi hasiera... urte askoren bueltan "...eta kitton!" idatziko titudan aurreneko leeroak Olinpiar Joko Paralinpikoei buruz hausnarketa laburra egiteko erabiliko ditut. Jakin badakit horrelako gaiei buruz jarduterakoan hipokresiaren lerroa oso fina bihur daitekeela, eta badakit horrelako txapelketa handiak jokatzen direnean bakarrik egiten diegula tartea komunikabideetan, bide batez gure burua zurituz. Doala "nostra culpa" aurretik. Baina tira, orain urte batzuk gaitasun urrikoen hainbat kirol jarduera jarraitzea tokatu zitzaidalako edo, beharbada Ander Romarate eta Richard Oribe igerilariak Londresen lan bikaina egin dutelako, edo ez dakit seguru zergatik... eskerrik beroena eman nahi diet kirol egokituari aritu eta ari diren guztiei. Izan ditzazkegun arazoak erlatibizatzen lagundu baino gehiago, arazo horiek gaindi daitezkeela erakusten digute, gehienak bai, behintzat. Bizitzak berak jartzen dizkigun mugak hor daude, baina norberak bere buruari jartzen dizkionak dira batzuetan hesirik handienak. Une batez titular handietatik aldendu eta haratago doan hausnarketa egiteko bidea erakusten digute kazetarioi. Bakoitzaren esku dago hartu ala ez. Irakurle eta ikusentzuleek ere eskertzen dutela uste dut. Bihar Cristianoren tristuraz hitz egingo dugu berriro, baina gaur... Segi aurrera!

Somos Eibar Eskubaloia, Euskal Koparen liderra

Domekan Elgoibarko Alcotari 33-20 irabazi ondoren, eibartarrak indartu egin dira Euskal Kopako sailkapenaren lehen tokian eta bigarren fasera sailkatzeko aukera ezinhobe dute. Urtarrilean jokatuko den fase horretan hemengo lehenengo biak eta Asobal B multzoan jokatzen duten Bidasoak, Barakaldok, Ereintzak eta Zarautzek hartuko dute parte.



Somos Eibar-koak eta Alcotakoak partidu amaieran.




Errugbi Eskolako ikasturte hasiera

Astelehenean bildu ziren Portalean Eibar Rugby Taldeko Eskolaren kurtso hasiera prestatzeko. Bertara gonbidatuta zeuden 9 eta 17 urte bitarteko neska-mutilen guruso guztiak; han izan ez zirenek, dena dela, aukera dute euren seme-alabak taldearekin jokatzen, horretarako taldearekin harremanetan jarrita.

Mendiko orientazio ikastaroak

Gipuzkoako Goi Mendi eskolak mendiko orientazio ikastaroak antolatu ditu irailaren azken aste-bururako eta urriaren lehenengorako. Irailaren 29an eta 30ean ipar-orratza erabiliz egingo da Hondarribiko Aiako Harrian eta hastapen mailakoa izango da, eta urriaren 6an eta 7an egingo dena, bestalde, Andoaingo Adarran, azken hau trebakuntza mailakoa.



Ikastaro biek prezio berbera dute: Gipuzkoan federatuen kasuan, 63 euro; bestelako federatuak, 66; eta ez federatuen kasuan, 78 euro. Informazioa jasotzeko eta izena emateko 943-461440 telefono zenbakira deitu dezakezue.

KIROLTASUNEZ

APUNTIA

Non eta hainbeste iskanbila sortzen duen estropada munduan! Hori ikusi zen aurreko domekan Donostiako kaian, hasi nesken txandarekin eta mutilenarekin jarraian. Beste arraun taldeetakoek zoriondu egin zituzten, bai Rianxeirakoak eta baita Kaikukoak ere. Maisuki jokatu zuen ere "Purito" Rodríguez txirrindulariak ia berea zen Espainiako Itzulia Contador-ek kendu zionean: horiek bai adierazpen eredugarriak! Horrela erantzun zuen ere Bartzelona Foball Taldeak Superkopa Real Madrilekin galdu eta gero: alderantzizkoa ikusteko gaude oraindik! Badira irabazten ohituta dauden kirolariak, noizbehinka besterik galtzen ez duten horietakoak. Kirolari handiak izateko, baina, galtzen jakitea falta zaie. Bestearen meritua onartu beharrean, eurek ez dutela euren onena eman... eta halakoetan babesten dira euren porrot bakanetan. Jakingo balute errekonozitzen, behingoz, galtzaileei esker direla eurak txapeldunak!

Eibar KE-k Kopan aurrera egin du

Abaroaren bi gol nahikoak izan ziren atzo Lleida talde indartsuari bere zelaian irabazteko eta Kopan aurrera egiteko. Bigarren kanporaketa zuten Garitanoren mutilek, Laudion jokaturako lehenengokoan 0-1 irabazi eta gero. Nagusitasun osoz irabazi zuten eibartarrek, orain arte kataluniarrek Ligan emandako maila ikusita ezustekoa emateraino. Hurrengo kanporaketa ere partidu bakarrera jokatuko dute eibartarrek: ea zortea alde eta etxean jokatzea egokitzen zaien.

Domekan, bestalde, Ligako 4. jardunaldian, Eibarrek Izarra hartuko du Ipuruan,



18.00etan. Partidua hasi aurretik, hainbat urtetan eta orain arte harrobiko entrenatzaile izan diren Jesus Mari Etxeberria eta Pako Navarrete omenduko dituzte.

Herriko pilotariak Kluben Artekoa hasi dute

Gaur Astelenan jokatuko diren partidu birekin hasiko da Kluben Arteko txapelketa Eibarko Klub Deportiboko pilotarientzat: kadeteetan, Arrillaga eta Urionabarrenetxeak Alde Zaharreko ordezkarien aurka neurtuko dituzte indarrak. Jarraian, I. mailako nagusien lehian, Unamunzaga eta Bengoetxeak Oiar-

tzungo bikotea izango dute aurrez-aurre. Bestalde, Pilota Eskola martxan hasi da: martitzen eta eguenetan izango dute hitzordua Kirolegian, 17.00etatik 19.00ak arte (ez da derrigorrezkoa bi ordutan jardutea) eta interesa duten zazpi urtetik gorakoek izena bertan eman dezakete.

Saskibaloi taldekoen lagunartekoak

Bihar jokatuko dute euren artean azken denboraldian mailaz igo duen Ruibal Alquilerrek eta Katu Kalek, gure herriko saskibaloiko talde biek. Lehenengo lagunartekoan Ruibalek 84-42 irabazi zion Mutrikuri eta, liga hasi

aurretik (irailaren 22an), Katu-Kale izango du azken aurkaria. Azken honek, bestalde, lau baja izango ditu denboraldi berrirako eta Iñaki Sánchez entrenatzaileak Arizmendiari eta Iriondo izango ditu laguntzen.

berriak

HERRI-KIROLAK

Gaur apustu berezia izango da Arraten, tartean afari bat jokoan izango delako. Jose Antonio Egurrola "Mendigotxi" k ordu erdia izango du idi-probetan erabiltzen duten 1.780 kiloko harriarekin metro bat betetzeko. Apustua- ren antolatzaileak Azitaingo jaietan urtero jarduten duen herri-kiroletako taldea da.

JUDO KLASEAK

Kalamuak astelehenean hasi zituen ikasturte berriko klaseak. Infantil mailako ikasleak bi taldetan banatuko dituzte (17.30-18.30): astelehen eta eguaztenetan jardungo du batek eta martitzen eta eguenetan besteak. Kadete, junior eta senior mailako judoek, bestalde, astelehen, eguazten eta barixakuetan entrenatuko dute, 19.00etatik 21.00etara. Aurten, berritasun moduan, karatea emango dute infantil mailan, martitzen eta eguenetan, Jose Antonio Hoyos gerriko beltzaren eskutik.

URKIZU, 13
(Villalba-ren ondoan)
697 614 069

ILEAPAINDEGIA BERRIA!

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 120200** Faxa: **943 120204**

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	



NEREA BEITIA (Udal Euskaltegia)

"Lasterketak guztiondako bilgunea izan nahi du"

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eskutik, Euskaraz Bizi Nahi Dut herri-lasterketa egingo da Eibarren, beste herri askotan moduan irailaren 22an. Gurean lasterketa antolatzen dihardute AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Klub Deportiboak, Eibar Triatloi Taldeak eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteak.

- Zein da lasterketaren helburua?

Euskaraz bizi nahi duen jende guztiarentzat bilgunea izatea da asmoa eta, horrekin batera, euskararik jakin barik ere aldarrikapen horrekin bat egiten dutenena ere bai. Garai berri hau euskararen garaia izango dela bermatu behar dugu denon artean. Milaka herritarrek euskaraz bizitzeko erabaki sendoa erakusten badugu, euskaraz bizitzeko baldintzak lortuko ditugu eta, berandu baino lehen euskaraz biziko gara.

- Zer egin behar du lasterketan parte hartu nahi duenak?


Nahi dutenek alde zuzenetik izena emateko aukera izango dute, Klub Deportiboan astelehenetik barixakura, 19.30etatik 20.30etara. Izen-ematea internet bidez ere egin daiteke, www.kontseilua.org webgunean eta egunean bertan ere izena emateko aukera eskainiko da, 10.00etatik aurrera Untzagan. Lasterketa, berriz, 11.00etan hasiko da.

- Honezkeroko ibilbidea ere zehaztu duzue, ezta?

Adinaren arabera lau lasterketa egingo dira. 6 urtera artekoek San Andres eliza paretetik ekingo diote lasterketari, Calbetón kalea igaro eta Untzagaraino (200 metro). 6-11 urte bitartekoek Untzagan hasi, Calbetón pasatu, Zuloagatarrenen kaletik jarraitu eta Toribio Etxebarriatik egingo dute antxitxiketara (500 metro). 12-17 urte bitartekoek aurreko ibilbidea birritan egingo dute, 1.000 metro bete arte. Eta 18 urtetik gorakoentzat ibilbidea 5.000 metrokoa izango da, Untzagan hasi eta Untzagan amaitzeko.

- Izena ematean zerbait ordaindu behar da?

Haurren izen-emateak euro bi balio ditu eta lasterketaren kamiseta nahi izanez gero, denera 7 euro ordaindu beharko dira. Helduen izen-emateak, berriz, 5 euro balio ditu eta kamiseta nahi dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte; ez da dortsalik izango. Hala ere, parte hartzen duten guztiei diploma emango zaie hasieran, zenbaki banarekin, lasterketa amaitzean egingo den zozketan parte hartzeko.



Gerrako bizipenak dantza ikuskizunean

Kukai dantza konpainiak "1937 Gogoaren Bidezidorretatik" ikuskizuna taularatuko du hilaren 21ean, 20.30etan Coliseoan. Mireia Gabilondoren gidoiari jarraituta eta bere zuzendaritzapean eta Jon Mayaren koreografiarekin, dantzariak 1937ko maiatzaren 7an Euskal Herriko milaka haurrek gerratik ihesi erbestera egindako bidaia gogora ekarriko dute, ume haietako zazpiren istorioak ardatz modura hartuta. Ikuskizunari musika ipintzeko ardurua Juan Manuel Beltrán-ek izan du eta dantzariak Jon Maya, Eneko Gil, Urko Mitxelena, Alain Maya, Ibon Huarte, Nerea Vesga eta Vaneza Castaño izango dira. Sarrerak 10 euro balio du.

Argazkigintza digitalaren hastapenak

Azken urteotako martxari jarraituta, argazkigintza digitalaren oinarriko kontzeptu eta teknikak ikasi nahi dituztenentzat ikastaroa emango du Jose Valderrey argazkilaria. Klaseak urriak 1, 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24, 29 eta 31n eta azaroak 5 eta 7an izango dira, Portalean, 19.00etatik 21.30etara. Ikastaroan parte hartu ahal izateko gutxienez 16 urte izatea eskatzen dute eta prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 79 eurokoa beste guztiarentzat. Informazio gehiagorako edo izen-emateko Pegorara jo behar da, irailaren 17tik 24ra (plaza mugatuak).

Ikasturte hasiera Portalean

Topalekuak gaur arratsaldean ekingo dio ikasturteari, Marta Irusta eibartarraren zilarrezko bitxien erakusketarekin. "Xaouen" izenburuko erakusketa hilaen 28ra arte egongo da martxan, ohiko ordutegian: astegunetan 19.30etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.30etatik 21.00etara. Bestalde, Topalekuan erakusketa ipini nahi dutenek 638284912 telefono zenbakira deitu dezakete eta Maite Arriagarekin berba egin.



Sasoiko lehen kontzertua Cielitorekin

Cielito Musika Bandak kontzertu sasoiari ekingo dio asteburu honetan, domekan 12.30etatik aurrera Coliseoan eskainiko duen emanaldiarekin. Carlos Sánchez Barbak zuzenduko duen kontzerturako egitaraua honakoek osatzen dute: "Montera Negra" (paso-doblea, J. M^a Alegria "Pinttu"), "Aires vascos n^o2" (rapsodia, J. Franco), "Agua, azucarillos y aguardiente" (aukeraketa, F. Chueca), "The Phantom of the opera" (aukeraketa, A. Lloyd Webber) eta "Across the stars" (tema, J. Williams) eta



Cielitok bost lan eskainiko ditu domekako kontzertuan.

laburrak

AFARIKETAN

Afariketan programan izena emateko epea irailaren 17tik 20ra bitartean egongo da zabalik, Indianoa Gaztelekuan (Muzategi, 3an), 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara; eta Zapatuetako Tailerretarako izen-ematea ikastetxeetan bertan egingo da, irailaren 24tik 28ra. Informazio gehiagorako, Astixara jo daiteke (Zezenbide, 7, 943206231 telefono zenbakian).

UEU-REN IKASTAROAK



Udazkenerako ikastaro eskaintza berria prestatu du UEUK. Ikastaroak Markeskuan emango dituzte eta parte hartzeko interesa duenak izena emateko aukera dauka jada (www.ueu.org). Hamar ikastaro izango dira denera eta, ohikoari jarraituta, jakintza alor ezberdinei lotutako gaiak landuko dituzte.

OSTIRALAK DEBEGESAN

Euskadi+Innovaren eskutik, Facebook sare sozialari buruzko ikastaroa antolatu dute Debegesan irailaren 20 eta 21erako (goizez, 09.00etatik 13.00etara), "Berezeroekin harremanetan jarri Facebook bidez" izenburupean. Izena emateko 943 82 01 10 telefono zenbakira deitu edota pymes@debegesa.com helbidera idatzi daiteke. Ikastaroaren prezioa 35 eurokoa da.

Lau argazki erakusketa hilabete honetarako

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen eskutik, irailaren 30era arte honako argazki erakusketak izango dira ikusgai: Depor tabernan Afotmir, Montcada i Rexach-eko argazkilari elkarteko lanekin osatutakoa; Portalea tabernan, Bakarne Elejalderen lanena; El Ambigú kafetegian, José Ignacio de Castroren argazkiak; eta Untzagako jubilatuetan, "Mendi artean" Bixente Eizagaetxeberriaren argazki erakusketa.



RUFINA ALVAREZ PECIÑA

2. urteurrena (2010-IX-13)

**GURE BIHOTZEAN
IRAUNEN DUZU BETIKO**

Etxekoen partez



Izaro
Aulestiarte

Ni-Niak

Ondo gogoratzen dut etakitto!-n idatzi nuen lehenengo zutabea.

Kazetaritzako 1. mailan nembilela uste dut eta "Zezenketak; artea ote?" edo antzeko titulu bat ipini nion testuari. Urte batzuk pasa badira ere, badakit orduan idatzitakoak orain ere gaurkotasuna izango lukeela. Zezenketen eztabaida bolobolo dabil azkenaldian ere, hamaika herritako jaien bueltan berpiztu baita polemika. Polemika horri ihes egin, eta egunotako beste albiste "fresko" baten inguruan jardutea erabaki dut azkenean.

"Espainia, lanik eta ikasketarik gabeko gazteen paradisu" zioen titular batek piztu dit arreta. Titular ponpoxo horren atzean zegoen albisteak dio Espainiako gazteen %23,7k ez duela ikasten ezta lan egiten ere, hau da, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko herrialdeen batz bestea baino zortzi puntu gehiago. Notiziaren harira, "Generación Ni-Ni" ("Ez-Ez belaunaldia") terminoa aipatu da berriz ere prentsan, ez lanik ez ikasketarik ez duten gazteen taldeari jarritako etiketa. Duda barik, portzentaje altua da. Eta, iritziak iritzi, lanik eta ikasketarik gabeko gazte horiek denak "alpertzat" eman dituenik ere ez da falta izan. Baina, gaur egun, ikastea eta lan egitea borondate kontua bakarrik al da ba? Nik dakidala behintzat, "Ez-Ez" talde horren baitan egoteak ez baitu beti eta derrigor esan nahi ez zarenik saiatzen, edo besterik gabe alperra zarenik. Ni-Ni-en artean ere egongo delako nahitaezko Ni-Ni-rik, edo zuzenean "Krisiaren belaunaldiko" kide izatea tokatu zaionik ere. Etiketak jartzea hain da erraza batzuetan...

185.600 elebidun gehiago

Eusko Jaurilaritzak V. Inkesta Soziolin-gustikoaren emaitzetan bada begia non jarri. Hona zipriztin batzuk gogotarako: orain dela 20 urte baino 185.600 elebidun gehiago dago Euskal Herrian, %27 hain zuzen; elebidun kopuruak gora eginda ere, euskararen erabilera 1991koa baino txikiagoa da (gaur egungo elebidunek gutxiago erabiltzen dute); erabilerak eremu formalean egin du gora gehien (etxean behera egin du, salbu guraso eta seme-alaben artean); eta 35 urtetik beherakoan artean euskara erabiltzen dutenak gehiago dira EAEn.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

Eusko Jaurilaritzaren barruan dagoen Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu du. ESEP-ek Euskara 21 du abiapuntu eta aurreko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ordezkatzera dator. ESEP-ek Jaurilaritzaren datozen 12 urterako hizkuntza politikaren eta euskararen normalizazioaren norabidea erakutsiko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak ESEP kritikatu du bi alde aipatuz: dokumentua lantzerakoan aldundia "gonbidatu hutsa" izan dela eta, bestetik, ESEP-ek euskararen normalizazioan aurrera baino atzera egin duela.

euskararen txokoa

Bien Aparecida jaiak asteburuan

Kantabriako amabirjiñaren omenezko jaiak ospatuko dituzte Eibarko Kantabriako Etxekoek eta, horren harira, bihar 16.30etan tute txapel-

keta jokatuko dute bazkideek Jardinetako egoitzan eta sailkatzea lortzen duten lehenengo bi bikoteei afari bana emango diete sari modura.



Marceros de la Bahía kontzertua eskainiko du San Pio X.aren elizan.

Domekan 12.00etan San Andres elizan meza ospatuta ekingo diote egunari. Jarraian bazkide eta lagunentzat piskolabisa eskainiko dute (13.00etan Jardinetako kaleko egoitzan) eta 15.00etatik aurrera elkarrekin bazkalduko dute, Ipuruko bolatokian. Jaiak hilaren 29an jarraipena izango du, 20.00etatik aurrera San Pio X.aren elizan Marceros de la Bahía eta Sarrián de Santoña taldeek emango dute kontzertuarekin.

Arrate izenekoek jai domekan

Domekan ospatuko dute Arrate izenekoek euren urteroko jai eta, aurrekoetan bezala, aurtan ere Arrate izenekoek talde polita batzea espero dute antolatzaileek. Amabirjiñaren pausoen bidetik Arrateraino oinez joan nahi dutenak goizeko 09.00etan Untzagan elkartuko dira, bertatik Azitaineraino jaitsi eta jarraian Arraterako bidetara jarraitzeko. 10.30ak aldera Arraten bertan hamarretakoa hartuta oinez joandakoek autobilez joandakoekin bat egingo dute eta ja-




Arrate izenekoek denetarikoko jokoak antolatzen dituzte euren egunean.


rraian, 11.30etan jokoei ekingo diete. Nahi dutenek 12.30etako meza entzuteko aukera izango dute eta, horiek guztiak amaituta, Kantabria jattetxean bazkalduko dute.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egin beharko da ...eta kitto!-n.




Azkenian ailegatu da zuen eguna, printzesak! INTZAK bost, MALENEk zazpi: bagoiaz aurrera, neskak! Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, GARAZI eta URKO Arakistain Mendizabal, harañegun lau urte egin zenduz-eta. Famelixako guztien partez.




Zorionak, EKAIN, Arrate bezperan bost urte bizi-bizi bete zenduaz-eta. Segi holan, alai eta erne! Patxo haundi bat famelixakuen partez.




Zorionak, MADDI, domekan zortzi urte beteko dozuzelako. Aupa zu! Muxu haundi bat danon partez.




Zorionak, UNAX, mutil haundi, hillaren 19xan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.




Zorionak, JOKIN, Arrate egunian urtebete egin zendualako. Muxu bat aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, ALAITZ, domekan bost urte bete zenduaz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, KEPA, gaur bost urte egitten dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JUNE, pasa dan 24an sei urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, SARA, atzo zazpi urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, GORKA, martitzenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, LEIRE Alvarez, harañegun 15 urte egin zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Miren zure ahiztiaren partez.

hildakoak

- Ramiro Galán Seoane. 85 urte. 2012-IX-4.
- Maria Asensio Beltrán. 60 urte. 2012-IX-6.
- M^a Pilar Ezpeleta Aranzeta. 2012-IX-6.
- Celia Larrinaga Erkiaga. 92 urte. 2012-IX-7.
- Ana M^a Arrieta Lezeta. 95 urte. 2012-IX-7.
- Juan Jose De Picaza Egaña. 69 urte. 2012-IX-8.
- Victor Ubera Mujika. 86 urte. 2012-IX-9.
- Luis Conde Blanco. 85 urte. 2012-IX-12.

jaiotakoak

- Asier García Clemente. 2012-VIII-29.
- Yassine Radimi. 2012-VIII-30.
- Izaro Kapelastegi García. 2012-IX-7.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

14an: 22.30

15ean: 17.00, 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"El irlandés"

Zuzendaria: J.M. McDonagh

(2 ARETOAN)

14an: 22.30

15ean: 17.00, 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"La delicadeza"

Zuzendaria: David Foenkinos

(ANTZOKIAN)

14an: 22.30

15ean: 19.45, 22.30

16an: 20.00

17an: 20.30

"Desafío Total"

Zuzendaria: Len Wiseman

(ANTZOKIAN)

15ean: 17.00

16an: 17.00

"Madagascar 3"

Zuzendaria: Eric Darnell



ZAPATUA 15

BARRENAKO JAIK

12.00. Paella lehiaketaren hasiera.

14.00. Paellen aurkezpena eta sari banaketa.

15.00. Herri-bazkaria. Barrenako parkean.

17.00. Mus txapelketa.

BIEN APARECIDA JAIK

16.30.- Tute txapelketa, bazkideentzat. Kantabriako Etxean (Jardiñeta kaleko egoitzan).

DOMEKA 16

ARRATE IZENEN KOBEN JAIK

09.00. Untzagan batuko dira, oinez Amabirijiñaren pausoen bidetik Arrateraino joateko.

10.30. Hamarretakoa.

11.30. Jokoak.

12.30. Meza. Ondoren, bazkaria Kantabria jatetxean.

BIEN APARECIDA JAIK

12.00. Meza, San Andres elizan.

13.00. Piskolabisa (Jardiñeta kaleko egoitzan).

15.00. Bazkaria. Ipuruako bolatokian.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

KONTZERTUA

19.30. Transicion taldearen kontzertua (doan). Karrika tabernan.

MARTITZENA 18

HITZALDIA

19.00.- "Ekologikoa, baserrikoa eta Euskal Herrikoa", Debabarrenako I. Aste Ekologikoaren barruan. Portalean.

EGUAZTENA 19

HITZALDIA

19.30.- "Mendia ez da muga", Marimendi taldekoen hitzaldia. Klub Deportiboan.

EGUENA 20

IKASTAROA

09.00. "Bezeroekin harremanetan jarri Facebook bidez", Ostiralak Debegesan programaren barruan. Debegesan.

ODOL EMATEA

18.30. Odola-emateko jardunaldia, Odol-Emaileen Elkartearen egoitzan (Pagaegi, 5).

HITZALDIA

19.00. "Debabarrenako kontsumo taldeak", Debabarrenako I. Aste Ekologikoaren barruan. Portalean.

ikastaroak

✓ Umeentzako Irakurketa Kluba liburutegian

Hartzaileak: LHko 1., 2., 3. eta 4. mailako umeak.

Non eta noiz: **Urriak 23 eta azaroak 20, 18.00etatik 19.00etara, Portalean.**

Informazioa eta eskaerak: Irailaren 21era arte, Pegoran.

✓ Helduen Irakurketa Kluba liburutegian

Non eta noiz: **Urriak 9, azaroak 13 eta abenduak 11,**

19.00etatik 20.00etara, Portalean.

Informazioa eta eskaerak: Irailaren 21era arte, Pegoran.

✓ Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa

Non eta noiz: **Irailaren 25etik urriaren 17ra, 19.00etatik**

21.00etara, DYArene ordezkaritzan (Pagaegi, 5).

Informazioa eta izen-ematea: 943464622 telefono zenbakian.

✓ Argazkigintza Digitala (lehen urratsak)

Non eta noiz: **Urriak 1, 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24, 29 eta 31**

eta azaroak 5 eta 7, 19.00etatik 21.00etara Portalean.

Informazioa eta izen-ematea: Irailaren 17tik 24ra, Pegoran.

✓ Kotxeen mekanika eta etxeko konponketak

Non eta noiz: **Urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, martitzenetan, 17.50etatik 19.50etara Andretxean.**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ Autodefentsa feminista

Non eta noiz: **Urriak 20, goiz eta arratsalde Portalean (ikastaro gelan).**

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ "Sentitu, pentsatu ekin eta mugitu feminismoan!"

Non eta noiz: **Urriaren 1etik azaroaren 5era arte,**

asteleheneetan, 18.00etatik 20.00etara San Andres ikastetxean.

Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

HOROSKOPOA

ARIES

Gehiago lasaitu beharko zinateke eta ez hainbeste estutu. Behar denari garrantzia ematen ikasi behar duzu.

TAURUS

Egunerokotasunera egokituko zara konturatu gabe; oporretatik bueltan hori saihesteko asmoz etorri arren.

GEMINI

Proiektu berriak izango dituzu, pozez zoratzen ipiniko zaituztenak. Egoera aprobetxatzen saiatu zaitetz.

CANCER

Iragana ahaztu eta datorrenari heldu besterik ez duzu. Bolada txarretan ere beti dagoelako zeezer ikasteko.

LEO

Espero gabe, maitasun berria iritsiko da zugana. Jakizu horrelakoak inoiz ez direla espero: hor dago bere magia.

VIRGO

Zergatik kostatzen zaizu horrenbeste muxu bat ematea? Pekatua bailitzan hartzen duzu. Hori baino sanoagorik!

LIBRA

Gauzei zure izena ipintzen hasi beharko zara, ezer barik geratu baino lehen. Halako lapurrak inguruan ere!

SCORPIUS

Beti erdibidean zaude, inori arrazoia eman barik. Gero eta gertuago duzu, baina, bustitzeko ordua. Zuk ikusi!

SAGITTARIUS

Abesti bat buruan bueltaka izango duzu etengabe. Ez da nolanhikoa, mezu garrantzitsua gordetzen baitu.

CAPRICORNIUS


Lagun bati mesedea eskatu behar diozu eta ez dakizu zelan egin. Eskatu, zurekin zorretan dago-eta oraindik.

AQUARIUS

Noiztik ez zara gabez irtetzen? Gorputza astindu behar duzu pixka bat, bestela gogortzeko arriskua izango du.

PISCIS

Dena ondo irtetzen zaizu azken aldian eta joera horrek luze iraungo du. Hori bai, ez eskatu behar baino gehiago.



erakusketak

✓ Irailaren 13tik aurrera

"BACK TO SKOOL" erakusketa.
Karrika tabernan.

✓ Irailaren 14tik 28ra

"Xaouen", MARTA IRUSTA. Bitxien erakusketa. Topalekuan.

✓ Irailaren 30era arte

AFOTMIR, MONTCADA I REXACH-eko argazkilari elkarte. Erakusketa. Klub Deportiboan.

BAKARNE ELEJALDE. Argazki erakusketa. Portalea tabernan.

JOSE IGNACIO DE CASTRO. Argazki erakusketa. El Ambigú kafetegian.

"Mendi artean" BIXENTE EIZAGAETXEBERRIA. Argazki erakusketa. Untzagako jubilatuetxean.

farmaziak

✓ barixakua 14

EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

✓ zapatua 15

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Ibarondo (Zeharkalea, 2)

✓ domeka 16

EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

✓ astelehena 17

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

✓ martitzena 18

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

✓ eguaztena 19

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

✓ eguena 20

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

✓ barixakua 21

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egutegia: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

2	3	6				
		3		2	1	7
9						
6			2	3		
	5	1		4	7	
		2	4			9
						1
1	7	8		9		
			7	6		3

SUDOKUA

8	5	3	0	6	1	4	7	2
6	2	9	8	7	4	3	5	1
7	1	4	3	8	2	6	9	5
5	3	8	2	1	9	4	7	
2	4	2	5	3	0	6	1	0
0	5	7	7	4	0	2	3	5
3	9	6	1	8	7	5	2	4
4	7	2	6	9	5	1	8	3
1	8	9	4	2	3	7	6	8

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Estaziño kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, 2 komuna eta trasteroa (8 m²). Igogailua. 81 m². Guztiz berritua eta altzariekin. Tel. 660-739563.
- Pisua salgai Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, ganbara eta balkoi handia. Berritzeko eta igogailua jartzekotan. Tel. 645-008496.
- Pisua salgai Errekatsu kalean. Logela bi, jangela, sukaldea eta komuna. Altzariekin. Berogailua. Sartzeko moduan. Merke. Tel. 659-757572.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 628-872295.
- Pisua alokagai Wenzeslao Orbean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Merke. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 622-049086.
- Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Ermuan. Tel. 608-474923.
- Pisua konpartituko nuke beste lagun batekin Eibarko erdialdean. Tel. 689-236575.
- Pisua alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. Lagun bat edo birenzat. Tel. 660-378181 eta 943-207271.

1.3. Konpartitzeko

- Urkin pisua konpartitzeko laguna behar dut. Tel. 686-735525.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Antonio Gisa-sola kalean. Tel. 610-698277.
- Taberna alokagai Eibarren, jubilaria dela-eta. Sozietate edo elkartea egiteko aproposa. Tel. 672-777429.
- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Asua-Errekan. Sarbide azkarra. Tel. 670-793312.
- Ilepaindegia alokagai. Aukera paregabea. Oso ekonomikoa. Arazo pertsonalengatik lagatzen da. Tel. 667-806737.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683. Maria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 630-826813.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile. Tel. 606-569927.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 669-311385.
- Emakume arduratsua eskaintzen da tabernak, elkarateak... garbitzeko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez eta ospitalean) eta pegorak garbitzeko. Tel. 699-609190.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 637-294236.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan sukaldari. Tel. 610-997046.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko eta klaseak emateko arratsaldean. Tel. 677-591982.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 636-423493.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-419214.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, biltegian lan egiteko eta igeltsero moduan. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 688-302653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-306915.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 616-218076.
- Emakumea eskaintzen da hoteleko kamarera moduan, sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Tel. 646-143287.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-619997. Trinidad.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 696-802587 eta 943-031697. Isabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian laguntzeko. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-101631.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-180132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-658156.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-873547.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-290524.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-124325.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-126144.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-677626.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.

4.2. Langile bila

- Logopeda behar da kabinete pribatu batean. Tel. 943-202715 eta 670-824327.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna baterako asteburuetan. Tel. 677-380689.
- Ilepaintzailea behar da ilepaindegian. Jornada erdiz eta ostiraletan egun osoz. Esperientzia baloratuko da. Tel. 675-462463.
- Garbitzailea behar da Arrateko jate-txe batean. Autoarekin. Tel. 656-752658.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Pertsona bat behar da DBHko klase partikularak emateko. Tel. 622-824468.

5.2. Eskaintzak

- Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da LH klase partikularak emateko. Tel. 628-591462.
- DBH eta LHko ikasleentzako edozein ikasgaietako klaseak ematen ditut. Tel. 660-197589.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditut. Tel. 651-503971.
- Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, HABE, IVAP... Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak etxeko lanekin lagunduko lieke DBH-ra arteko umei. Tel. 687-033834.
- Klase partikularak ematen ditut. Talde txikiak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa. HEO. Tel. 647-275374.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Euskaldun zein erdaldunentzat, haur zein helduak. Tel. 660-378181 eta 943-207271.
- Gitarra elektrikoko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai


- Ehizarako setter txakur-emea salgai. Tel. 649-258913.
- Eskopeta gainjarria (*superpuesta*) salgai. Tel. 649-258913.

6.2. Eman

- Pegorako 15 buzoien pack-a oparitzen da. Tel. 617-688311. Maria.



6.3. Galdu/Aurkitu

- Astelehen goizean txori txiki marroia aurkitu nuen T. Etxebarria kalean. Tel. 943-200345.



DEBA

Markiegi, 6 (Tel. 943-608052)




LEKEITIO

Sta. Elena, z/g (Tel. 94-6842655)

2012ko urritik 2013ko otsailera Lekeitioko edo Debako Aisia hoteletan **EZKONTZEN BAZARA**, honakoa jasoko duzu opari:

2 ordu DJ-arekin / Ezkontza Suitea + "Jarri Galant" pack termala / 55 plazako autobusa gonbidatuentzat / Afari osteko mokaduak / Cava brindiserako / Mahaietako dekorazioa lorekin / Menu pertsonalizatuak / Prezio bereziak argazki erreportajeen + Ezkontza gonbidapenak doan


Aipatutako eskaintza 50 gonbidatutik gorako ezkontzetarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta promozioei buruz.



deba@aisiahoteles.com



lekeitio@aisiahoteles.com



GIDA PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

DEITU...

943 20 67 76
943 20 09 18



*Instalazioak nahi duzunean eta
nahi bezain beste erabiltzeko aukera*

UGAN KLUB

Fermin Calbetón, 21

EIBAR

943 82 04 52



ugan.klub@euskalnet.net



**FITNESS
SPINNING
AEROBIC
AQUATONIC
PILATES
BOSU...**

**IGERILEKUA ETA
SAUNA BARNE**

**dena
55 €**



**DIETETIKA ETA
FISIOTERAPIA ZERBITZUA**

UR JARDUERAK:

*4 hilabetetik 6 urte bitartekoentzat
igeriketa (ur tenperatura 33^otan)*

